

NIZAKO TRATATUAREN
EMAITZAK

X. KIROL FORU EUROPARRA
2001eko URRIAK 17-18 – BRUSELA

NIZAKO ADIERAZPENAREN JARRAIPENARI BURUZKO LAN TALDEAREN EMAITZAK

(1) Partehartzaileek uste dute 2000ko abenduko Nizako Kontseilu Europarrean *Politika erkideak ezartzeko orduan kontuan hartu beharreko kirolaren ezaugarri bereziei eta Europako gizartean duen zereginari buruzko adierazpena* egitea aurrerapauso handia dela kirol europarrarentzat. Beharrezko zaigu orain adierazpen politiko garrantzitsu horretatik ondorioak ateratzea eta hor aipatzen diren balio etiko eta sozialak sustatzea.

(2) Partehartzaileak poztu egin dira Rogge jauna izendatu dutelako NBOko (COI) presidente eta munduko kirolak eduki behar duen dimentsio etiko guztia emango diolakoan daude. Oso pozik geratu dira, era berean, «The rules of the game, governance in sport» (Joko arauak – portaera kirolean) batzarra egin zelako Bruselan. Adierazi dute gai horri buruzko lanen emaitzak garrantzi handikoak direla.

(3) Partehartzaileak atseginez hartu dituzte Batzordeak, Nizako adierazpenaren ondoren, lehiakortasunaren politikari buruzko gai batzuetan hartu dituzten erabakiak. Ikusi dute jokalaria profesionalen eskualdatzei, jokalarien ordezkarietara edo kirol klub profesionalentzako laguntza publikoei buruzko gaiak zuzenbide komunitarioa eta kirolaren berezitasuna kontuan edukiz erabaki direla, horrela ados daudelarik Nizako adierazpenaren izpirituarekin.

(4) Hala eta guztiz ere, Nizako adierazpenarekin ez da dena amaitzen. Hausnarketak, beraz, jarraitu egin behar du erkidego europarrean eta estatu kide izan nahi duten herrietan. Horrela, kirolaren gaia Nizako Kontseilu Europarraren ondorioz hasi den prozesuaren barruan sartu behar da.¹ Testuinguru horretan, suediar eta belgikar presidentzien ordezkarien jakinarazpenak entzun dituzte.

Orain Erkidego europarreko erakundeei, estatu kideei, entitate publikoei, federazioei eta kirol munduko solaskide guztiei aztertzea dagokie kirolak zein lekutan egon behar duen eraketa europarrean eta testu komunitarioetan eta, era berean, zein eratan planteatu behar den kirolaren etorkizuna Europa mailan.

¹ Nizako Tratatuen eranskin gisa doan Batasunaren etorkizunari buruzko adierazpenean, Gobernu arteko Batzarrak Europako Batasunaren etorkizuna zabal eta sakonki eztabaidatzeko deia egin du.

(5) Partehartzaileek gogoratzen dute kirolaren munduaren ezaugarri garrantzitsua dela mundu horretan sartuta dauden aktoreak oso ezberdinak izatea. Ezberdintasun hori dela eta, kirol antolakundeek izaera ezberdineko arazoak dituzte aurrean eta irtenbide egokiak aurkitu behar dituzte agintari nazional eta erkidegokoekin batera.

Kirola defendatu eta sustatzen aktore bakoitzak duen zeregina garrantzitsua dela azpimarratzen dute partehartzaileek. Bereziki kirolari eta kirol buruzagi guztiei doakien gaia da kirola eta horretarako antolatzen dira libreki kirol federazioetan. Estatu kideen arazoa ere bada, kirola aurrera eramaten lagunduko duten politikak ezarri behar baitituzte. Kirola ere ari da arian-arian arazo komunitario bihurtzen. Subsidiarioritasun printzipioa hertsiki errespetatuz, Batzordeak ahalik eta bitarteko gehienak higiarazi behar ditu kirola sustatzeko. Begi bistakoa da, kirola mundu osoan dagoelako zabaldua, kirolean eragina duten eskumen ugari (lehiakortasuna, nonahi ibiltzeko askatasuna, osasuna, etab.) dituela Erkidego europarrak.

(6) Nizako Adierazpenarekin adostasunean, partehartzaileek azpimarratu dute kirol antolakundeen autonomiaren alde daudela eta, kirol egitura egokien bidez, beren antolaketa izateko eskubidea dutela. Onartu egiten dute federazioek funtsezko garrantzia dutela Europar kirolaren antolaketan. Gogoratzen dute federazioek beren betebeharrak ere badituztela: gardenak izatea, elkartasuna, demokrazia eta hezteko eta gizartean bizitzeko balio duen kirola izatea.

(7) Partehartzaileek adierazten dute, batetik, kirola kontuan edukitzea nahi dutela gainerako politika komunitarioetan. Bestetik, kirol antolakundeei gonbitea egiten diete beste arlo batzuetan programa edo ekimen komunitarioek eskaintzen dituzten aukerak, batez ere finantza aukerak, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

(8) Telebistaz emateko eskubideen arazoa oso korapilotsua da eta ezin da guztientzako errezeta bera eman. Estatu kideek egingo duten aukera dena dela (telebista eskubideen jabetza indibiduala edo kolektiboa), funtsezkoa da kirola behar bezala garatzeko klubak arteko eta diziplina ezberdinen arteko elkartasun printzipioa gordetzea.

Adierazpenak hiru fase aurreikusten ditu: 2001. urtean, suediar eta belgikar presidentziek, Batzordearekin elkarlanean eta Europako Parlamentuarekin batera, alderdi guztiekin eztabaida zabal bat egingo dute, parlamentu nazionaletako eta iritzi publikoaren ordezkariak ere parte hartuz bileretan. Prozesu horretan kide izan nahi duten estatuak ere esku hartuko dute, Laekenek, 2001eko abenduan egingo den bileran, Europako Kontseiluak adierazpen bat onartuko du 2002 eta 2003. urteetan prozesu honekin jarraitzeko bultzatu beharreko ekimenak bertan erabakita gera daitezzen. Azkenik, 2004an Gobernu arteko Batzarrerako deia egingo da eztabaida gaiak aztertzeko. Batzar hori, ez da izango inola ere zabalitze prozesuaren oztopo.

(9) Lillen bezala, kirolaren berezitasunean oinarritutako printzipioei buruz (kirolaren betebeharrak sozialari, balio sistema bat transmititzeko bide gisa duen zereginari eta abarrei buruz) gehiago hausnartzeko adorea eman nahi dute partehartzaileek, eta berezitasun horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa egiteko ere (helburu ekonomikoa dutenak alde batera utziz gainerako gaiak arautzei dagokienez kirolak duen autonomia errespetatzea: joko araudia onartu, gazteak babestu eta lehiaketan zuzentasuna bermatu, elkartasuna gorde edota jendeak kirola egin dezan sustatzeko xedapenak emateko orduan). Nizako adierazpena aurrerapen handia izan da kirolaren berezitasunaren ideia definitzeko orduan. Ideia hori eman behar zaion edukiari buruzko hausnarketak jarraitu egin behar du.

2004. urtea *kirolaren bidezko heziketaren urte europarra* deklaratzeko Batzordeak hartu duen ekimenak atseginez bete ditu partehartzaileak. Uste dute ekimen hori aukera ezin hobea dela kirolaren balio sozialak eta heziketakoak sustatzeko.

(11) Garai hauetan bizitzen ari garen gertakizunak ikusita, inoiz baino beharrezkoagoa da kirolak transmititzen duen bake mezua eta besteei zor zaien errespetua aldarrikatzea.
